



EUSKAL-IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

(872'tik 873'ra bitarteko 4 larruki)

Bederatzigarren mendeko azkenaldera sartuak gera Kukulla'ko Donemil-
lan'en Lekaidetxeko larrukien bidetik.

Gaurko lau larrukiok, aski laburrak ditugu luzaroz. Gutxi dira damaizkiguten
toki-izenak, ugariak ordea giza-izenak, eta baita doneizenak ere.

Beti bezala, lau larruki auen gaia ere, lekaidetxee; egindako emaitzak dira.

Orduango Euskalerrriaren sarkaldea da larruki auetako gertakizunen lurral-
dea: autrigoitarren lurraldea.

Gauza bat bakarra dute, gaurko larruki auek, benetan goraipagarria: Laue-
tako batek, edestian aurreneko aldiz, judutar euskaldun baten izena ematen
digula.

Autrigoitarrak aipatu ditut. Esana dutala uste dut, Erromatekoan Autrigoni,
orduango euskal-leiñu edo tribu baten izena zala. Oso-osoan gure Euzkadi'tik-
at aurkitzen zala esan bearko genduke Enkarterriak eta Araba'ren sarkaldea
berek izan ez ba'litu.

Nerbion ibaiean asten zan, eta Santander uritik ez urruti, Atxo edo Ajo aitz-
muturrean egiten zuan Kantabritarrek; n muga.

Egoalderuntz, lurralde aundia zan, iristen bait zan Okamendietaraiño, bere
altzora Miranda-Arana, Billarkaio-aldea eta Bureba osoa bilduz.

Ekin dezaigun, besterik gabe, gure lanari, toki-izenen azterketatik asita.
Ikus, lauen artean larruki auek damaizkiguten izen oien kopurua:

DONDISLE

COVA portera

TREPIA

OVETO

ERELIO

VILLIELLA

FLAINO

FRESNU

ALLAMPO

VILLOTA

SALCETO

CASTELLA

FERRANE

VILLATECA

SALCIDII

TIRONE

MOLINA DE OLIVARES

MOLINA DE OBARENES

CASTELLA.- Mintzatu izan gera len ere Gaztela'z, baiñan esan dezagun
zerbait geiago, aztertzeraz goazten lau larrukiotan agertzen zaigun lurralde
ortaz.

Lauetan datorkigu bere izena berdin idatzia: CASTELLA. Bañan, "E" ori "I", eta bi "L" oiek "LL" irakurriz, gaur-egun bezala CASTILLA agoskatu bear dalarik, goiztarregia iruditzen zait IX mendea ori guztia orduangoa izateko.

Seguruaski, izen ori, -CASTELLA = CASTILLA-, geroagoko berridazketa batean sartua dute gure lau larrukiok.

IX mendean "Castilla"rik ez zan oraindik. Askoz gutxiago Konterri edo Laterri baten antzeko Gaztela'rik.

Gaztelu batzuk bai, baziran. Ez dakigu zenbat, ez dakigu nolakoak, ez dakigu ziurki nondik. noraiño zeuden ere, baiñan baziran eta an zeuden. Orre-gaitik, arabitarrek "Al KILE", esan oi zioten lurralde arri: "GAZTELUAK", ainzuzen. Ori esan nai bait du itz arabiar orrek. Baiñan "Gaztelu" aiek Araba'ren luzapen bat ziran, arabarrek babestuak beti arabitarren eraso-aldietan. Seguruaski, arabarrek "GAZTELUETA" esanen zioten gaztel-leku guzti ari, eta ortik jaioa izanen da geroagoko lurralde aren izena: Castilla.

"Castella" artako kontearen izena ere ematen digute lau larrukiok: "Comite Roderico in Castella".

Larruki auen berridazleek eman nai dioten zentzuan, ordea, oraintxe esan dugun bezala Castella'rik ez zan oraindik garai artan. Baiñan konte bat bai, bazan. Ez ordea, au ere, berridazle aiek itz orri eman nai dioten zentzuan.

Konte ura, gudaiburu bat besterik ez zan; euskalduna seguruaski, "Kile" edo gaztelu aiek babesten zituzten gudari arabarrak bezala. Eta arabarra bera ere seguruaski, naiz kondaira gaztelarrak beste era batera mintzatu.

Arabitarren edestilariak ere aipatzen digute "Konte" aren izena: RUDERIQ.

Ona, 865'garren urteko erasoaldiari-buruz Aben Adahari izeneko edestilari aietako batek damaizkigun albisteak:

Duero ibaietik Arlanzon ibaiiaz-gora igota, Okamendiak igarota bereala dagoan Feh Berdhiz ((Pradanos de Bureba?) izeneko errian ipiñi ornen zuten beren kapardegia, andik, inguruko larretan arrapatzen zuten guztia lurreratuz. "No qued" a RUDERIQ Señor de Al Kile, ni a... (izen irakurgaitza) Señor de Toca, ni a Gundisab señor de Burgia, ni a Gomez señor de Mesanica, castillo alguno".

Dakusazunez "Konte" ez baiña "Jaun" esaten dio Aben Adhari'k Ruderiq ari. Baiña beste "Jaun" asko ere aipatzen dizkigu. Geiegi, ain toki motzean, aietako baten lurraldeak, Ruderiq'en Al Kile aiek adibidez, españiarrek nai luketen bezala, "Castilla" indartsu Laterri zabal bat osotu aal izateko. Ez zan IX mendean orrelako "Castilla"rik. Soilki gaztelu batzuk; eta, aiek, arabarrenak. Arabar autrigotarrenak.

Alatagutziz, badirudi Ruderik'ek bazuala alako garaitasun bat, besteen aldean. Begira ba zer geiago esaten digun Aben Adhari edestilari ark:

Gero, Ruderiq'en gaztelurik ederrena zan Al Mal-leha (¿Salinillas de Bureba?) artu ta ezereztu zutela. Andik, indarrez Feg Al Cagüix (¿Pancorvo?) igarota, Ibero ibaieraiño eta Al Ahazon (¿Arganzon?) uriaren lurralderaiño eraman zutela borroka. Ta, kristauak garaiturik, arrapatu zuen guztia desegin ondorean, etorritako bidetik itzuli zirala garaille, oraindik zutik aurkitzen zutena lurrera boteaz.

Araba'ko konteak beraiek zer ote ziran? Buruzagi utsak seguruaski. Ez beintzat Asturietako konteak bezala jaun feudatarjak. Ori, Sampiro garai artako gotzai edestilariak berak jakitera damaigu. Ikus:

' Bernardo Estornés Lasa: "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco", I, 373-374.

Dokumentuetan agertzen zaigun lenen Araba'ko Kontea Eylon da. 866'garren urtean, Eylon, Asturietako III Alfontso'ren aurka borrokan zebillen. Menderatua izan zan, eta Obiedo'ra baiturik eramana. Sampiro'k, gertakizun artaz idazterakoan, ez daki Eylon ari zer titulo eman; Arabarren buruzagia zala, badaki. Baiñan berak Asturietako Erreiñuan ederki ezagutzen dituan konte aiek bezalakoa ez zala ere bai.

Orregaitik, katigu jausitako Jaun ari-buruz zerbait esan bera-eta, ez zuan arabarren Kontea zanik esan; soilki "qui videbatur comes eorum" esan zuan: "Aien kontea... jzirudiala!: "Videbatur".

~~*

COVA. Ez digu izen onek zerbait jakiteko ezertxo ere balio. Toki izen da. Euskalduna izan daitekean galdetzen ba'didazu, baietz erantzungo dizut nik, gaur egun ere Koba, Kobia, Kobie, Goba, Gobia, Gobie, euskaldun karistiarren ezpafiñetatik sarritan entzuten dan itza bait da. "...presimus presuras in montibus in fontibus (...) de Co^ya portera usque perrexit Allampo" dio larrukiak: "jaberik gabeko mendiak eta iturriak artu genituan, sarreran dagoan KobaTik Allampo'ra iritxi arte".

"KOBA" -eta orren aldakuntza dan "GOBA"- itza Karistiarren euskerara sartu izateak badu bere mixterio-koxkorra. Ez zan erromatekoan sartu. Erromatarrek ez bait zioten leizari "co^ya" esaten. "Spelunca", esaten zioten; edo "spelum", "antrum" eta "latibulum". "Co^ya", erdiaroko lateraren itza da. Baiña erdiaroan oso berandu agertzen dana!

Erdiaroan sartu zan beraz itz ori gure Sarkaldeko euskalkira. Nola, eta non-dik ordea?

Laterazko itzik geienak, erdiaroan Liturgiaren izkuntzatik sartuak ditugu. Eta ona, orain, aipatutako mixteriotxoaren koxkorra:

"COVA" itza Biblian ez da bein bakarrik ere agertzen! Ori eskierki esan aal izateko, aztertu ditut "Concordantiae Biblicae" esan oi zaien Iztegi Bereiziak. Ez dago ezpaidarako biderik: Bibliak ez du itz ori ezagutzen. Ezta Liturgiak ere. Liturgiak ez du sekulan "cova"rik aipatzen.

Non arraiotik sartu ote zitzaigun bá itz ori gure sarkaldeko euskeraren altzora? Orren berandu gaiñera? "Co^ya" erdiaroko lateraz baiño lenago agertzen bait da "cueva" azken erdiaroko gazteleraz!

Gabiltzan beraz eme! Euskeraren atzora sartu?, ala euskeraren altzotik atera egin ote zan itz ori?

Gaur ez dut astirik, baiña nai nuke datorren egunean zerbait esan arazo poxpolin ortaz.

~~*

ALLAMPO.- Paul abata, Jon bereterra ta Nuño elizgizona "COVA"tik "ALLAMPO"ra ibilli zirala lurrak artzen, diosku 872'ko uztaillaren 4'eko larruki onek.

Aurrena, agoskatu dezagun ongi izen ori: Bere bi "L"ak "L" dira oraindik IX mendean: ALAMPO, beraz.

Baleike izen ori, gure larrukian oso itxuraz aldaturik agertzea. Zer ote zan bere egiazko itxura, ots, erriak itzegiterakoan ematen ziona? ARANKO? Ez dut uste. "Aran" jatorra "Alan" biurtua izatearen aldetik eragozpenik ez legoke, euskerazko "R" oso errez eta maiz "L" biurtzen bait dute erdeldunek, bein baiño geiagotan esan dugun lez. Baiñan, ez dakit larrukian izen orrek dakarren

"PO" atzizkia "KO" izan daitekean. Ez bait dakit "K" euskalduna erdeldunen ezpañetan -edo lumen punttetan- ain errez "P" biurtzen danik ere.

Danadala, "Alancho" bat bada Araba'ko Kanpetzu'n. Toki-izen orren "CH" izki bikoitza "K" agoskatzen ba'dugu, ALANKO aterako zaigu. Bai baiña..., seguruaski, gaur kanpetzutarrek toki orri Alantxo esaten dioten bezala, Alantxo esanen zioten antziñako egun zarretan ere. Askoz errezagoa da, itz ortan jatorrizko "R" euskalduna "L" bihurturik egotea, gaurko "TX" ori antziñako "K" bat izatea baiño.

Danadala, antziña ere gaurko "TX" ori "TX" esaten ba'zan Kanpetzu'ko Alantxo, ARANTXO izango litzake: "Vallecito". Ainzuzen antxe bertan dago Araba'ko arantik politenetako bat: "El Valle de Arana": "El Valle del Valle".

Ta? Larrukiko Allampo euskalduna ote? Euskalduna zan beintzat IX mende artan izen orri zegokion tokia, Losa izeneko Arana.

Baditugu beintzat, gaur bertan, Araba'n Kanpetzu'ko Alantxo ortaz gaiñera, enbor lez "ALAN" daramaten toki-izenak: Alanas (Alan-ats), Kanpetzu'n bertan; Alantxogueta (Arantxo-guen-eta?); Alangorri; Alangua (Alan-koa?) izeneko erri bat; Alanguarabide eta Alangurabidea; Alaña (Alan-gaiña?) erri baten izena.

ALANGUA erri arabarraren izenak gogoeta auxe piztu dit buru barruan: "Alan-gua" "Alan-koa" dan bezala "Alampo" zar ura ez ote zan "Alanko"? Ots, ARANGO, "R", oso maiz, erdeldunek "L" biurtzen dutelako? Onela ba'litz, bi itz oiek IBARREKOA eta IBARREKO'ren senide izango lirake.

Orri uste aal izateko, ordea, Euskeraren "K" edo "G" izkiak euskeraren barruan edo euskeratik erderara igarotzerakoan "P" biurtzen díran jakin bearko genduke. Iñork orrelako ejenplu edo adibide bat ezagutzen badu, benetan jasoko ditu nere eskerrik sendoenak, orrelako adibideen jakitun egiten ba'nau. (Nere norabidea: Seminario Diocesano. Apdo.86. Bitoria-Gazteiz). Naita idatzi dut "B"z, oraingoz Euzkadi'ko uriburua danaren izena, itz ori euskalduna izan daitekeala iduritzen bait zait.

Ataltxo au bukatzeko, esan dezadan, Alangua erriaren izena 1.712'an ALAUNGA agertzen dala; eta ALAUNGARABIDEA berriz 1.712'ko urte ortan bertan, sei urte lenago, 1.706'ean, Alanguarabide agertzen zana. Lumalari bat beraren erruz, seguruaski, erru orren aurretik eta erru ortaz gero, izen oien enborra "Ataun" ez baiña "Alan" izan bait da.

Sei urteko epe laburrean orrelako aldakuntzak gerta ba'daitezke, nork jakin ainbat aldiz berridatziak izan diran gure larruki zaarrei zer gertatu zaien. Gauza zailla dala etimologigintza!!! Ta, larrukiek, eta zorioneko dokumentu zarrek ez dutela siniste itxurik merezi!!!

A! Ezin esango dizut larrukiak damaigun izen orren esan naia zer dan, ez bait dakit izen orren enborra dan "ALAN"ek zer esan nai dezakean.

ERELIO.- Naiz "E" nagusiz idatzirik agertu, Erelio ori erri baten edo beste zerbaiten -belardi, alor, baso edo orrelako zerbaiten- izena dan jakiterik ez dago. Nik, erri batena ez baiño beste zerbaiten izena dala esango nuke. Joan naiz, ori argitu nairik, laterazko, erdiaroko later, erromantze eta gaztelera zarreko iztegiatar, baiñan ez dut "erelio" itzik aurkitu.

Nere kezka oiek larrukiak bi Erelio aipatu izatetik sortuak dira: eskuñekoa eta ezkerrekoa:

"De Co^ya portera usque perrexit Allampo et Sancti Saturnini usque ad Ere-

lio dextero, et de sinistro ab omni integritate": "Sarrerako Koba'tik Alanpo'ra iritxi arte, eta Saturnino Donetik eskuñeko Erelio'raiño eta ezkerredekotik osotasun osoa".

"Osotasun oso ori" Dondisle Aranari dagokio an bait zebiltzan larruki onen idazteerazleak jaberik gabeko lurak arrapatzen: "in loco que dicitur Valle de Dondisle", "Dondisle'ko Arana esaten zaion tokian".

Dondisle Aranaz, Aldizkari onen beste zenbaki batean itzegin genduan.

Emen, SATURNINO DONEAREN izena toki-izen bihurturik agertzen zaigu. Ta ori garrantzi aundiko gauza dugu, Euskalerriko kristautasunaren edestian ez bait da edozein Saturnino Donea.

Tolosa'ko Gotzaia izan zan III mendearen erdian. III mendean, Tolosa, Garona ibaiaren ertzeko uri ospetsua, Akitani euskaldunaren muga-mugan zegoan, eta seguruaski erdi-euskalduna zan bera ere.

Naitanaiez izan zituan, beraz, Donesaturnino'k euskaldunekin arremanak.

Edestiak ez digu arreman oietaz, oso berandu arte, deus esaten. Kondairak, ordea, Euskaldunen ebangelarietako bat Donesaturnino izan zala dioskute: Iruña'raiño etorri zitzaigula, eta kondaira oietako baten ustez, berak bataiatu zuala eta berak sagaratu ere zuala Iruña'ko lenen Gotzaia: naparrek ain maitea duten Fermin Donea2.

Kondaira geienek izaten dute olertizko lili ugarien azpian egiaren zati bat. Eta zati ori badute noski, Saturnino Donearen oroitza gordez, mendeak-zear gure denborotara iritxi zaizkigun eusko-kondaira zaarrek.

Ori adierazten dute Saturnino Doneari euskaldunek eman dizkioten izen maitetsuek. Eta, baita, Saturnino Donearenganako eraspina Euskalerrian ain goizik zabalduz egon izateak.

Izenei dagokionez, frankiarren erara, "Zernin" biurtu zuan Naparroa'ko erromantzeak Saturnino izena. Baiñan askoz leenago "Satordi" edo Saturdi deitu zioten euskaldunek goxoki. Benaparroa'n eta Laburdi'n, berriz, aspaldi-aspalditik eraspenduak eta, ortaz gaiñera, oso maitatuak ziran Donee ematen zitzaizen oorezko izena eman zioten Saturnino Doneari: londoni Saturdi.

Guk, larruki ontan toki-izen bihurturik aurkitzen dugu londoni Saturdi'ren izena.

Lurralde batean Done baten izenak toki-izen bihurtua izatera iristeko, ordea, askoz eta askoz leenagotik, ezagutua, omendua, eta maitatua izan bear du Done orrek lurralde artan.

Gure larruki au zarra da: IX mendekoa. Mende ortan londoni Satordi'ren izena toki-izen bihurturik egoteak, beraz, londoni Satordi-ganako eraspina mande Dondisle'ko Aranera mendeak leenago iritxi zala esan nai digu. Zenbat mendez leenago?

Dondisle Arana, ordea, Euskalerrian, sarkalde-sarkaldeko lurra zan. Autrigoitarren ertza-ertzakoa, Eusko-lurralde urrutienetan urrutiena, zokoratuen artean zokoratuena, bide nagusi orotik baztertuena. londoni Satordi ibilli omen zan Akitaniarren eta Baskoien lurraldetik aldenduena.

Autrigoitarren azkeneko muturreraiño ain era sakonean IX menderako iritxiz, londone Satordi'renganako maitasuna Euskalerrian zabaltasun osoan ain goiz zabaldu ba'zan, euskaldun guztiak, zerbait oso aundiaren truke londoni Satordi'ri zor bereizi bat bazietelaren jakitun zirala uste izatea naitanaiezkoa dugu.

² "Edestia", gazteleraz Historia. "Kondaira", gazteleraz, Leyenda: "Lo que se cuenta".

Orrela, IX mendeko larruki zar au, kondaira oien barrengo egitasunaren alde mintzatzen zaigu: londoni Saturdi III mendean gure asabek ebangelari izan zutelako ori egia izan daitekeala erakustera datorkigula dirudi.

Ez da, ori, Edesti-iztiaren alorreko arrazoi sendo bat. Bai ordea Logikaren baratzako aalgarritasun edo posibilitate sendo bat. Ez dezagun, berriz, aztu, Edesti soilla ez dala bera bakarrik antziñako gizabizieraren berri-emateko gauza; bearrezkoa duala Logikaren laguntza.

Oraingoz londoni Satordi utzita, ERELIO'ra itzultzen ba'gera, zegoan tokian zegoalako, bere izena euskalduna dala esango dizut. Badugula gaiñera Euskalerrian izen orren emborra dan EREL daramaten toki-izen geiago. Bí aurkitu ditut nik: Baso baten izena da EREL TUA, Araba'ko Legutiano'n. EREL, berriz, Naparroa'n Elortz ibaiak urratutako arrupe batena.

"Erel"ek zer esan nai dezakean, ordea, ez dakit-eta, ezin esango dizut nik. Lagundu bezait irakurleren batek, bera korapillo ori askatzeko gauza baldin ba'da.

Gaiñera "Erel" au, ez ote da "Eredio"ren aldakuntza, ta "Eredia"rena berriz azkeneko au"? "Ered"z mintzatuak gerala derizkiot.

VILLOTA.- "...illa hereditate in loco que dicitur Villota et Villateca et Sancti Staphani". Lumalariak oztopo egin digu esaldi ori idaztera koan: "In loco que dicitur" ez baiña, "in locis que dicuntur" idatzi bear zuan. Orregaitik, onela euskerátu bear diogu bere oldozkera: "Billota, Billateka ta Doneztebe esaten zaien tokietan".

(Eskerrikasko, irakurle, baiñan badakit "que" ez baiña "qui" ipiñi bear zuala gure lumalari zar arek; ori, ordea, ez diot zuzendu nai izan).

"Bill" eta "BIL" aurrizkietaz mintzatua naiz bein baiño geiagotan, Aldizkari ontako orrien bidez. Esan nuan "VILLA" aurrena laterazko eta gero gaztelerazko itza dala. Azaldu nituan aro ezberdiñetan izan dituan zentzuak. Baiñan, argi utzi nuan, baitare, bedi aurrizki bezala, bedi erdizki bezala, bedi atzizki bezala, "BILL" edo "BIL" itz ori Euskalerriko toki-izenetan zeñen maiz agertzen zaigun.

Bee-erdiaroko Bizkai'n Jaunek, eta Bizkai'z kanpoko Euskalerrian Erregeek, arresiz inguratutako uriak eraikitzen asi ziranez gero, "Villa" daramaten uriek (Villaviciosa de Markina, Villafranca de Oria, Villarreal de Legutiano, Villanueva de Arga...) "Villa" ori gazteleratik datorkien itza dutela badakigu.

Baiñan XII mendez aurretik, Euskera mintzatu zan lurraldeetan, "Billa"ren bat agertzen ba'zaigu, -antziñako Aurtigoitarren Billarkaio'ren ala Iruña-ondoko Billaba'ren izenetan adibidez-, arreta millaz ibilliko nauzu ni, erri oietako BILLA ori lateratik datorkien "VILLA" bat dutela esan aurretik. Euskalduna izan bait dezakete. Ta, izan ere, seguruaski, euskalduna bait dute!

Orain Burgos'koa dan Billarkaio aurtigoitarraz eta Iruña'ondoko Billaba Baskoiaz, zuzenean aritu izan gera. Baita Bibar'ko Diaz On Errui (Don Rodrigo Diaz de Vivar) "Zid"en jaioterriaz ere. Erri orren izenari bi "V"ak "B" biurtzen baldin ba'zaizkio, erdel-kutsu oro galduta, izugarritzko euskal-kutsua sortzen bait zaio. Ez zaitez arritu, baztar artan euskeraren aztarnak aurkitzen ba'ditugu. Bibar bustitzen duan erreka berak ere, URBEL izan bait du beti bere izena!

"BILL", eta atzizki ta guzti "BILLA" itzak zer esan dezakean ez dakit. Bere azken urteetan adiskide maitea izan nuan Lopez Mendizabal'dar Ixaka'ren ustez, gazteleraz "brezo" esaten dan "illar", "illa", itzetik ornen dator, aurretik "B" protetiku edo apaingarri bat daramala.

Ez dakit ori orrela dan; baiñan itz ori gure toki-izen askotan naitanaieuz euskalduna izan bear duala, bai.

"B"z batzuk "V"z geienak, "villa"rekin zer-ikusia baduten 81 izen aurkezten dizkigu Lopez de Gereñu'k. Badira oien artean erderazkoak, baiñan badira, asko gaiñera, euskerazkoak ere: Bilaustegia (Bil-autstegia?) adibidez, ala Villanos (Bill-ano-ts?), Villarreta (Bill-arreta), Villacun (¿?), Villangarratea (Billangarratea?), Villaran (Billaran)... eta anitz geiago³.

Ar ezazu eskuetan Kerexeta'tar Jaime'ren Abizen-Iztegia."Bil", "Billa"z asten diran abizenak ugari aurkituko dituzu bertan. Laister oartuko zera, nolako euskal-usaia darioten izen aietako askori.

Gure larrukiak, "BILL" daramaten iru toki-izen damaizkigu. Euskaldunak diruditen eta aipatu ditugun Villota ta Villateka aiek, eta aiekin batera beste bat: Villiella, agoskeraz "Villlela": "Et sua populacione pernominata Villiella": "ta Uritxo deritzan ango erriska".

Izen ori seguruaski erderatik datorrela esan dut. Ala ere, badaezbada aitortu bear ko dut asko dirala Euskalerrri zarrean "ELLA", "ELA" eta "EL" daramaten toki-izenak, eta, ondorioz, abizenak. Araba'n bertan, Ellabeia ("ella"- "beia") Arroyabe'n, eta Ellakuri ("ella"- "ko"- "uri") Audio'n.

"EL", "Ella" zer izan daitekean ez dakit. Lopez Mendizabal'en ustez "larre", gazteleraz "pasto", esan nai duan "ela"ren aldakuntzak dira. Ortaz Elabeia "Lugar Bajo el Pastizal" izango litzake, ta Ellakuria "El Pueblo del Pastizal". Bai ote? "Ela", erderaz pastizal dala egia da beintzat.

Beste bi toki-izen aiek onela zatituko nituzke nik: "Bill-ota", aurrenekoa; "Bill-ateka", bestea. "Ateka" zer dan badakigu danok: "brecha", "Ota", zer dan ere bai, "Ote"ren aldakuntza itz bikoiztatuetan: Ota-lore. Ota-mendi, Ota-uri..., adibidez.

Baiñan ia beti, adibide oietan bezala, "Ote", "Ota", aurrizki lez agertzen zaigu. Zer esan ote nai digu Argota eta Argote toki-izen naparretan bezala atziki lez datorkigunean? Ugaritasuna adierazten duan atziki bat ote dugu?

Arren, irakurle: Zuk, "ote"z ala "ota"z amaitzen diran toki-izenik edo abizenik ezagutzen ba'duzu, jakitera ema'idazu Gazteiz'ko Seminarioa idatziz. Norabidetzat auxe ipintzea naikoa duzu: "Seminario Diocesano, Apartado 86"

Gaurkoz, luze goaz-ta, emen bertan amaitu bear ko dugu gure saioa. Jarraituko dugu, Jainkoa lagun, "Euskerazaintza" onen urrengo zenbakian.

* * *

Beste zerbait ere esan nai nuke ordea, eragaillua itzali baiño len. Beste Done baten izena agertu bait zaigu azken unean toki-izen bezala larruki onen lerroen artean: "Sancti Stephani", ots, Doneztebe'ren izena.

- Doneztebe, Elizako liturgian Donerik zarrenetakoa da, zarrena ez ba'da.
- Euskalerrriko baselizetan-da, Elizako done zaarrenganako eraspina ain zabaldurik egotea, Euskalerrri kristautasuna aski goiz etorria izatearen aldeko arrazoia zan On Manuel Lekuona'rentzat. Ez da, arrazoi sendoegia, baiña beste batzuekin batera bere indarra izan dezake.
- IX mendea aski mende zarra da.
- Done baten izena, toki izen biurturik gertatzeko, esan dugun lez, toki

³ Gerardo López de Guereñu Galarraga: "Toponimia Alavesa". Bartzelona'n. 1989'an.

artan askoz leenagotik ezagutua eta maitatua izan bear du izen ura daraman Doneak.

—Dondisle aran autrigoitarra Euskalerriko zoko urrutienetan urrutienetako zokoa zan.

—Larruki onek ordea, IX mendean, Dondisle'n, bi Doneen izenak, Bi Done zarren izenak gaiñera, **toki-izen biurturik zeudela** aitor dagigu. Eta, ondorioz, ain urrutiko zokoak ez ziran Euskalerriko lurraldeetan Done zar oiek eta oien antzeko beste Doneak, azkoz leenago izanen zirala ezagutuak eta maitatuak, adierazera damaigu, ots, askoz lenago iri zala kristautasuna gure toki iri-kietara.

—Beraz, larruki au ere, Euskalerrira kristautasuna aski goiz iritxi zalaren alde mintzatzen zaigu.

Latieg;tar Bixente

